

LEZOKO ARRAUNLARI GAZTEEKIN BERRIKETAN


Jakin badakigu Lezo kostako herria izanik beti izan dituela arraunlariak. Garai batean arraunlari izatea bizibidea izan zen baina denboraren poderioz bizibide izandakoa kirol izatera pasa zen euskal herriko beste hainbat kirol bezala. Gaurkoan alde batera utziko ditugu garai bateko kontuak eta arraunean dabilen gazteak izango ditugu aipagai.

Seguraski behin baino gehiagotan ikusi izan ditugu Lezon barrena korrika pasatzen, baita eguraldirik kaxkarrena egin izan duenean ere, batek baino gehiagok behar bada etxean, auzoan edo lagunartean izango du arraunean dabilenik, batenbat ezagutu bai behintzat.


Kontuak zuzen zuzenean ezagutzeko protagonistengana jotzea da biderik egokiena eta horixe egin dugu. Axier Susperregi eta Josu Andueza izango ditugu ondorengo lerroetan solaskide.

Noiz eta nola hasi zineten arraunean?

Axier Susperregi (A.S.): Orduan hamalau urte izango nituen eta aurreko tenporadan Koxtapek irabazi zuen Kontxako bandera, badakizu horrek



Josu Andueza



Josu Andueza Nazioarteko domina jasotzen.

inguruko herrietan eragin egiten du eta ni, Xabier Ahiartza eta Sanjuango beste lagun bat koxtapeko direktibako batekin hitzegin ondoren entrenatzen hasi ginen.

Josu Andueza (J.A.): Ni Allerrun ari nintzen futboleant jolasten eta astean hiru egunetan entrenatzen genuen eta asteburuan partidu bat. Beste egunetan bakarrik nengoela ikusten nuen lagunak arraunean hasi baitziren, aurrena Axier eta hauek geroago beste batzuk. Egunero entrenatzen zuten, jai eta aste, eta ni bakarrik aspertu egiten nintzen. Orduan hasi nintzen arraunean, hasieran futbola eta arrauna batera eginez. Hurrengo urtean futbola utzi eta arrauna hartu nuen.

Zer moduzko esperientzia izan duzue arraunean?

A.S.: Arrauna gogorra da, hori guztiek esaten dute eta nik ez dut kontraktorik esango. Nik besteek bezelako esperientzia izan dut, normala.

J.A.: Neretzat esperientzia ona izan da, gogorra? neretzat ez da gogorra izan. Beste kirolen aldean arraunak denbora gehiago eskatzen du, egunero hor egon behar duzu, jai eta aste nahiz eta euria egin, nahiz eta elurra egin. Arrauna ez da lehen jendeak uste zuen bezela baserritar indartsuenek egiten duten kirola, ez da horrela.

Koxtapen hasi zineten arraunean, gaur egun non zabilzate?

A.S.: Orain soldaduzka egiten ari naiz eta ez dut arraunik egiten. Koxtapen hasi banintzen ere joan zen urtean Koxtape utzi eta Hendaikan egin nuen arraun. Hendaika Hendaiko arraun taldea da, orain dela bi hiru urte sortua.

J.A.: Lehenengo urtea koxtapen egin nuen eta Espainiako txapelketan domina irabazi genuen Gironako Banyoles-en, 1989.a zen. 1991ean munduko txapelketak

Banyolesen zirela eta bi urteak Euskadiko selekzioan egin nituen mundialetarako. Han hirugarren postua egin genuen. Hurrengo urtean zenbait froga egin ondoren Espainiako selekzioan sartu ninduten olinpiadetarako. Orain atzera berriro Koxtapen nago. Aurten kanpora aste beterako joaten naiz Espainiako selekzioarekin, baina aurreko hiru urteak etxetik kanpora egin ditut, Galizian eta Gasteizen.

Horrela ibiltzeko gustora egongo zinen, ez?

J.A.: Bai, bai, asko gustatzen baldin bazaizu burua galtzen duzu, neri behintzat hori gertatzen zait. Ez dakit zer duen, ez du dirurik eta ezer ematen baina neri asko gustatzen zait, goiz eta arratsalde egunero entrenatzen. Gustora.

Disziplina oso zorrotza izaten al da?

J.A.: Koxtapen kadete mailan nengoen ez hainbeste, jolas modura ibiltzen uzten dizute. Euskadiko selekzioa gogorragoa izan zen, gainera Legutioko enbaltsean ur gutxi zegoenez ezin genuen arraun egin eta egun osoa korri egiten eta jinasioan pasatzen genuen. Ez zegoen, hala ere, disziplina haundirik, klaseetara joan behar eta abar. Espainiako selekzioan disziplina oso zorrotza izan genuen, entrenatzailea oso zorrotza genuen, «sovietico» deitzen zuten oraingo entrenatzaile errusiarra bera baino gogorragoa.

Nola dago dopinaren gaia? Zuek inoiz dopatu al duzue zuen burua?

A.S.: Ni inoiz ez, ez dut ondo ikusten.

J.A.: Neri egin izan dizkidate dopin kontrolak eta beti negatibo eman izan dut. Dopina gorputzari zuzenean eragiten dion zerbait hartzea da, baina zeharka eragiten duten produktuak hartzea ez da dopin kontsideratzen, muga ez da zehatza, muga legea jartzen den bezala jarri dute.

Bitaminak hartzea normala da, nik egunean hiru aldiz entrenatzen nuen eta hori hartu gabe ezin duzu aurrera jarraitu erritmo horretan.

Lezon arraunlari asko al dago gaur egun?

J.A.: Lezoko jende asko dago arraunean, ez Koxtapen bakarrik, orain Lezoko jendea «Donibaneko»n hasi da, Ibaikan baten bat, Hondarribian,... Lezon badago indarririk, harrobi ona dugu nahiz eta bertan talderik ez izan.

Zuek Lezo kostako herri bezala ikusten al duzue? Lezotar batentzat arraun egitea tolosar edo lasartear batentzat den bezala al da?

A.S.: Nik Lezo kostako herri bezala ikusten dut, kontuan izan Lezo «Refugio de piratas y ladrones» izan zela. Trainerua ere bazegoen Lezon, sanjuangoek izorratu egin zutena. Dagoen afizioarekin Lezon talde bat aterako zen.

J.A.: Nik Lezo ez dut kostako herri bat bezala ikusten. Herritarrak itsasoarekin lotuta daude baina herria bera ez.

A.S.: Lezon marinel herria izan da.

J.A.: Egia da baina Lezo ez da San Pedro, Bermeo edo Ondarroa bezalako herria.

Izan al duzue gertakizun bitxiren bat arraunean?



Josu Andueza, Legution prestaketa egiten.

A.S.: Anekdotak asko baina orain hemen kontatzeko... bazen «zig-zag del kanta-briko» deitzen genuen bat, lehenengo kaletik atera eta laugarrenea pasatzen zena ziaaboga egitera gero hurrengoan bigarren kalean egiteko.

Zenbateraino aldatu da arrauna, kirol sofistikatua al da?

J.A.: Lehenengo aldaketak tresnetan daude, arraunak, boteen forma, materialak, orain arraunen forma aldatu dute ur gehiago hartu dezaten, arraunen luzera,... Trai-neruetan tradizio haundia dago eta hor ezin da aldaketarik egin, ez dute uzten, alda-ketak banko mugikorrean daude. Aldaketa nagusienak prestaketan daude. Espainiako selekzioan egunean hiru aldiz entrenatzen genuen. Goizeko 5,30etan jeiki eta 8ak arte entrenatu, gosalduta, ondoren klaseetara joan edo lo egin. Gero hamiketarik ordubietara beste entrenamendua, azkenekoa arratsaldeko bostetatik zortziterdietara. Egunero entrenatzen genuen baita larunbata eta igandeetan ere. Hilabetero mediku kontrolak izaten genituen, analisiak, zenbat burni duzun ikusteko... Jinasioan bertan ere gauzak asko aldatu dira, aparatu bereziak daude arraunlariarentzat. Gainera gu Mexikon izan ginen ez dakit zenbat metrotako alduran odoleko globulo gorriak ugaritzeko...

Hauxe izan zen Axier eta Josurekin izan genuen elkarrizketa, aldizkari honen mugek hala eskatuta ezinbestean labur egin behar izan genuena. Gure herri txiki baina aberats hau hobeto ezagutzen lagundu izan badu gu gustora geundeke, ondo izan.

XAXIKO